

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 618/2016 Erabakia, irailaren 27koa, honartzen duena Aldundi honekin zorrak dituztenen zerrenda argitaratzea, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren, Arabako zergen, 92.ter artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten zor eta zehapenengatik**

Kontuan izanda zer xedatzen duen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren, Arabako zergen, 92 ter artikulua, eta legez ezarritako alde zurreko izapideak bete ondoren, egoki da argitaratzea Arabako Foru Aldundiaren web orrian (<http://www.araba.eus>) artikulua horretan aipatzen diren zordunen zerrenda, haietako bakoitzaren informazio hau emango delarik:

#### 1. Zordunen identifikazioa:

Pertsona fisikoak: izena, abizenak eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.

Arabako zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. idatz zatia aipatzen dituen pertsona juridikoak eta erakundeak: sozietatearen izen osoa eta Identifikazio Fiskaleko Zenbakia.

2. Ordaintzeke dauden eta zerrenda argitaratzeko ondorioetarako kontuan izan behar diren zorren eta zehapenen baterako zenbatekoa. Ondorio horietarako ezin dira kontuan izan geroratuta, zatikatuta edo etenda dauden zorrak eta zehapenak, ez eta zergapekoari jakinarazi ez zaizkionak ere.

Zordunen zerrendan islatzen den egoera 2016ko martxoaren 31n zeukatena da; hain zuzen ere, abenduaren 29ko 22/2015 Foru Arauaren, zenbait zergaren araudia aldatzekoaren, bigarren xedapen iragankorrean adierazitako erreferentziako datan zegoena. Horrek esan nahi du zerrenda horretan argitaratzen denak ez daukala eraginik zordunak erreferentzia data horren ondoren egindako eguneraketengatik, zerrendan agertzen diren zorrak eta zehapenak ordaintzeari dagokionez.

Erabaki hau interesdunari jakinarazitzat joko da hura eta zordunen zerrenda argitaratzen direnean.

Zerrenda bide elektronikoaren bidez argitaratuko da, hartu beharreko neurriak hartuko direlarik haren edukia ez dadin indexatu Interneteko bilatzaileen bidez, eta zerrenda ez da eskuragarri egongo behin hiru hilabete igarotzen direnean argitaratzen denetik.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiarekin zorrak dituztenen zerrenda argitaratzea haren web orrian (<http://www.araba.eus>), otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren, Arabako zergen, 92.ter artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten zor eta zehapenengatik. 2016ko irailaren 30ean argitaratuko da.

Bigarrena. Aurreko idatz zatian aipatzen diren zordunen zerrendan islatzen den egoera 2016ko martxoaren 31n zeukatena da; hain zuzen ere, abenduaren 29ko 22/2015 Foru Arauaren, zenbait zergaren araudia aldatzekoaren, bigarren xedapen iragankorrean adierazitako erreferentziako datan zegoena. Horrek esan nahi du zerrenda horretan argitaratzen denak ez daukala eraginik zordunak erreferentzia data horren ondoren egindako eguneraketengatik, zerrendan agertzen diren zorrak eta zehapenak ordaintzeari dagokionez.

Hirugarrena. Erabaki hau interesdunari jakinarazitzat joko da hura eta aurreko lehenengo idatz zatian aipatzen diren zordunen zerrenda argitaratzen direnean.

Laugarrena. Hartu beharreko neurriak hartuko dira zerrendaren edukia ez dadin indexatu Interneteko bilatzaileen bidez, eta hura ez da eskuragarri egongo behin hiru hilabete igarotzen direnean argitaratzen denetik.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 27a

*Diputatu nagusia*

*RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE*

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

*JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasun zuzendaria*

*TERESA VIGURI MARTÍNEZ*